

Lehen aldiz emakumea idazkari nagusi

Hilabete honetan egingo den LABen VII. Biltzarraren ondoren Ainhoa Etxaidek hartuko du sindikatu abertzalearen zuzendaritza, Rafa Diezen ordeztuz. Lehen aldiz emakume bat izango da sindikatu bateko buru, bai Euskal Herrian baita Espainiako eta Frantziako Estatuan ere.

DANIEL UDALAITZ

MAIATZAREN 22 ETA 23AN egingo du LABek VII. Biltzarra, BECen (Barakaldon). Egun horretatik aurrera Ainhoa Etxaidek ordezkatu du Rafa Diez sindikatu abertzaleko Idazkaritza Nagusia. Horrez gain, Nazio Komiteko eta Komite Exekutiboko kideak ere aldatuko dituzte eta bi sektore berri –Soziokomunitarioa eta Osasungintza– eta hiru federazio –Zerbitzu publikoak, Zerbitzu pribatuak eta Industria– sortuko dira. Rafa Diezek, 1980ko II. Biltzarretik sindikatuaren zuzendaritzan aritu eta gero, eta 1992an Leioan egindako III. Biltzarrez geroztik koordinatzaile nagusi edo idazkari nagusi izan ondoren, utzi egingo du sindikatuko buruzagitza. Baina sindikatu jarraituko du, gobernatze egituretatik kanpo bada ere. Ez da, ordea, kargua utziko duen bakarra izango, beste arduradun historiko batzuek ere zuzendaritza utziko baitute.

Horrenbestez, belaunaldi aldaketa gertatuko da, baina arduradunen esanetan aurrekoen jarraipena izango da; izan ere, sindikatu abertzalearen ezauzgarri izan den jarduera soziopolitikoari eta ekonomikoari eutsiko diote. LABek gero eta afiliatu eta ordezkari gehiago ditu, eta bera da Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ordezkari duen sindikatu bakarra.

Sindikatu soziopolitiko

Biltzarrean onartuko den txostenaren arabera, sindikatu soziopolitiko eta klase sindikatu gisa dituen ezauzgarriari eutsiko die LABek. Jarduera programatzerakoan, kontuan har-

utzen dute gaur egungo marko juridiko-politiko, hura gainditzea helburu dutela, betiere. Marko horretan, hain zuzen, herria lau administrazioan banatuta dago –Espainiar Estatuko administrazioa, EAEkoa,

Nafarroakoa eta Iparraldekoa– eta LABen ustez, egoera hori aldatu beharra dago. Hori dela eta, lurralde historiko bakoitzaren egoera politikoa aztertzen du txostenean eta, besteak beste, Euskal Herriak etor-

Ainhoa Etxaidek Rafa Diezen tokia hartuko du LABeko idazkari nagusi moduan.



J.U. / ARGAZKI PRESS

42.000 militantetik gora

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ordezkari duen euskal sindikatu bakarra da LAB. Joan den urte amaierako azken datu ofizialen arabera, 42.000 afiliatutik gora (42.133) ditu. Azken lau urteotan soilik, 7.660 afiliatu gehiago ditu; hots, afiliazioa %22,22 igo da 2003tik 2007ra. Lau urteko epe horretan, 500 ordezkari sindikal gehiago ditu LABek. Lurralde guztietan hazkundea antzekoa izan dela dio sindikatuak. Egun, 57 egoitza ditu, eta haietan 160 bat lagunek egiten dute lan.

LABek %16ko ordezkari du Hego Euskal Herrian. EAEn %17,12koa da, ordezkari handiena 50 langiletik gorako enpresetan duela esan behar bada ere. 2007.

urtearen amaieran, 4.337 ordezkari zituen Hego Euskal Herrian –3.505 EAEn eta 832 Nafarroan–. Ipar Euskal Herrian, jakina, askoz ordezkari txikiagoa du, kontuan hartu behar baita sindikatu orain dela gutxi ezarri zela hiru lurralde horietan.

LABek nazioartean gero eta onespen handiagoa duela amaitu da Rafa Diezen agintaldia. Esaterako, 2006ko abenduaz geroztik, Munduko Federazio Sindikaleko (MFS) partaide da LAB, eta ez da, ez, testigantza hutseko onespena. Are gehiago, maiatzaren 19an eta 20an, Meatzaritza eta Metalurgia Industrien Sindikatuen Nazioarteko Biltzarra egungo da Donostian, LAB anfitrioi dela.

kizuna aukeratzeko duen eskubidea barne hartzen du.

Proiektu politiko guztiak baldintza beretan garatu ahal izatea bermatuko duen marko demokratikoaren aldeko apustua egiten du LAB sindikatuak. Adierazpen honetan agerian utzi du bere jarrera: “LABek beste Euskal Herri bat eraikitzeke proiektua defendatzen duenean, beti du buruan independentzia eta sozialismoa aldarrikatzen dituen proiektua: Euskal Estatu Sozialista”. Beraz, sindikatuak langile klasearen aldeko apustua egiten du proiektuan.

Neoliberalismoaren aurka borroka

Txostenak dio nazio askapenean aurrera egin dela, gaur egungo marko juridikoa krisi egoerara eraman dela, eta, azkenik, Euskal Herria ohartzen dela bere etorkizunaren jabe izateko eskubidea duela. “Ezin gauza bera esan, ordea, eredu ekonomiko eta sozialari dagokionez –dio txostenak–. Ezin dugu esan gaur egungo eredu ekono-

miko eta soziala ahul dagoenik”. Horren erruduntzat gaur egungo erakundeak jotzen ditu; “Bruselako, Madrilgo eta Parisko politika ekonomiko, laboral eta sozialetan oinarrituta egin dute Euskal Herrian kapitalaren interesen alde eta eginkizun hori ezin hobeto betetzen dute”.

Txostenak dioenaren arabera, neoliberalismoak gero eta indar handiagoa du, eta kalte handia egiten dio klase borrokari; hala, “oso zaila zaigu erakunde politikoetan eragina izango duen erantzun bat sorraraztea”. Sindikatu abertzalearen aburuz, “euskal gobernu eta administrazio autonomikoak neoliberalismoan oinarritzen dira, eta merkatuaren mendean dauden politika publikoak sustatzen dituzte”. Horregatik, hazkunde ekonomiko handia gertatu bada ere, ez da aberastasuna behar bezala banatzen. Gizarte eredu prekariora eta interes ekonomiko jakin batzuen baitan dagoen marko instituzionala ari dira sortzen.

Sindikalismoa aldaketa eragile

Txostenean, onartzen da LABek zailtasunak izan dituela azken lau urteotan ekintza sindikal oldarkorra aurrera eramateko. “Atzerantz goaz –diote– kapitalaren eta lanaren arteko borrokan: batetik, estrategia eta pentsaera neoliberalak langile klasea astindu duelako; eta bestetik, sindikalismoaren egoerarengatik”. “Zerbitzuen sindikalismo desideologizatu eta saldua”, etorkizunik gabea, kritikatu ondoren, horri aurre egingo dion sindikalismoaren alde egiten du LABek. Halaber, “esparru sindikal abertzalean indarrak biltzearen” aldeko apustuari eusten dio. “Horregatik –diote txostenean–, kontraesanak eta tirabirak badiren arren, sindikalismo abertzaleak bere esku du euskal langile klasearen protagonismoa indartzeko aukera, baita Euskal Herriak bizi duen aldaketa politikoa eragiteko eta patronalaren aurrean gure indar korrelazioa hobetzeko aukera ere”. ■

